ANDOAINGO UDALA

# AZAROAREN 25EKO ERAKUNDE ADIERAZPENA,

# INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNEAN

Azaroaren 25ean aldarrikatu egin nahi dugu emakumeek espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta gozatzeko duten eskubidea erabateko herritartasunari dagozkion eskubideak bermatzeko. Azken batean, askatasun indibidual eta kolektiboaren garapena bermatzea.

Emakume askok aurrerapenak lortu dituzte banaka egindako ahalegin gaitz baten bidez, bai eta mugimendu feministek eta beste erakunde batzuek egindako lanaren bidez ere, espazio publiko eta pribatuek gizonen eta emakumeen artean duten banaketaren dikotomia gainditzeko. Hala ere, oraindik ere nabarmena da alde bien arteko tartea bai batzuek bai besteek bizitza publikoan parte hartzeko egin dezaketen erabilerari dagokionez, baita gure hiri eta herrietako kaleez gozatzeko eta horiek okupatzeko moduari dagokionez ere.

Berdintasunezko erabilera hori mugatzen duten mekanismoen artean, sexu-indarkerian jarri nahi dugu arreta, mundu osoko emakumeek eta neskatoek pairatzen baitute eremu publikoan.

Aurten ere, aipamen berezia egin nahi diogu jai-giroetako erasoen gorakadari, batez ere substantzia kimikorik gabeko ziztaden bidez. Eraso horiek emakumeen aurkako gorroto antolatuaren erakusle dira, eta beldurra eta kontrola bilatzen dute. Hala ere, eraso bakoitzaren aurrean, sarean antolatutako mugimendu feminista bat atera da kalera, eta salatu egin ditu. Isiltasunak normalizazioa eta onarpena dakarrelako. Eta aspaldi esan genuen ez gaudela prest egoera hori gehiago onartzeko.

Azaroaren 25a, beraz, indarkeria matxistaren alderdiak ezagutzen jarraitzeko eguna izango da, gizartean normalizatuenak direnetatik hasita, hala ukituak; hitzezko lizunkeriak; mezu eta adierazpen sexistak, janzkeraren, sare sozialen edo lagunen erabileraren kontrola, nola espazio publikoa libreki okupatzeko zailtasunak (eskola-patioak, jolas-espazioak, parkeak). Maila gorago batean, eraso sexualak eta fisikoak daude, eta eremu bortitzenean, hilketak.

Emakumeen eta neskatilen aurkako sexu-indarkeriak, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du, funtzio sozial zehatza: emakumeak kontrolatzea eta askatasuna murriztea.

Bada garaia hitzetatik ekintzetara pasatzeko. Garrantzitsua da esparrua ezartzen duten legeak berritzea edo sortzea, are gehiago mugimendu feministak eskatutako norabidean egiten baldin bada, baina ez dute ezertarako balio hori garatzeko aurrekontu eta baliabide teknikorik gauzatzen ez bada.

Kontuan izan behar dugu erreklamatutako eskubidea ez dela segurtasunera mugatzen, baizik eta espazio batean bizitzeko, gizarteratzeko, berea egiteko eta eraldatzeko askatasunera eta sarbidera zabaltzen dela, emakumeen eta neskatoen interesen, nahien eta beharren arabera.

Horregatik guztiagatik, Andoaingo Udaleko udalbatzak honako erabaki hauek proposatu ditu, onar daitezen:

1.- Emakumeei espazio publikoa ukatzeko modu ugariak sakon ezagutzea, udal-politikak diseinatzean eta garatzean aintzakotzat hartzeko.

2.- Andoaingo emakume-elkarteekin batera, eremu publikoetan sexu-indarkeriari aurre hartzeko eta horri erantzuna emateko politika osotarikoak eraginkortasunez ezartzeko bultzatzen eta lantzen jarraitzea, gaitasunak garatuz, sentiberatuz, erkidegoaren mobilizazioaren bidez eta beste estrategia batzuen bidez.

3.- Espazio publikoetan hautematen den benetako segurtasunari dagokionez, Andoaingo hiri-diagnostiko parte-hartzailea Genero Ikuspegitik lantzen jarraitzea, emakumeen beharrak kontuan har daitezen. Emakumeentzat eta neskatoentzat herri seguru eta barnebiltzailea lortzeko.

4.- Tokiko politiketan hainbat alderditan lan egiteko behar diren baliabideak ezartzea: jarreretan eta portaeretan aldaketak bultzatzea, emakumeek eta neskek indarkeriarik gabeko guneez gozatzeko duten eskubidea bermatzeko, eta, horretarako, begirunezko genero-harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatzea espazio publikoetan.

5.- Aurreko puntuetan zehaztutakoa lortzeko beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan aritzea, hala nola udalekin eta Emakunderekin, gizarte-taldeekin eta mugimendu feministarekin; emakumeek eta neskek espazio publikoaz segurtasunez eta berdintasunez gozatu ahal izateko.

Indarkeria matxistaren errealitatea konplexua eta kontraesankorra da oro har, baina gazteengan begirada geldia eta analitikoa behar du. Aurten, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren egitarauaren helburua gazteen eremuko indarkeria matxista eta aurrea hartze-politikak aztertzea izango da.

Era berean, dei egiten diegu Andoaingo herritar guztiei azaroaren 25aren inguruan antolatu diren ekitaldietan ekinez parte har dezaten, bereziki indarkeria matxistaren biktimei omenaldia egiteko ekitaldian, azaroaren 25ean, 19: 00etan, Goikoplazan.

Andoain, 2022eko azaroak 25a

ANDOAINGO UDALA

# DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE 25 DE NOVIEMBRE

# DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

El 25 de noviembre queremos reivindicar el derecho de las mujeres al uso y disfrute del espacio público en condiciones de igualdad, para garantizar los derechos correspondientes a la ciudadanía plena. En definitiva, garantizar el desarrollo de la libertad individual y colectiva.

Muchas mujeres han logrado avances a través de un tenaz esfuerzo realizado individualmente, así como del trabajo desarrollado por los movimientos feministas y otras organizaciones, con el objetivo de superar la dicotomía de la distribución de los espacios públicos y privados entre hombres y mujeres. No obstante, todavía es evidente la diferencia entre ambas partes en el uso que unas y otros pueden hacer de estos para participar en la vida pública, así como en el disfrute y ocupación de las calles de nuestras ciudades y pueblos.

Entre los múltiples mecanismos que restringen este uso igualitario, queremos poner el foco en la violencia sexual, ya que la están sufriendo mujeres y niñas de todo el mundo en el espacio público.

También este año nos gustaría hacer una mención especial al aumento de las agresiones en ambientes festivos y especialmente a través de pinchazos sin sustancias químicas, agresiones que son la muestra de un odio organizado hacia las mujeres y que buscan el miedo y el control. Sin embargo, ante cada agresión, ha salido a la calle un movimiento feminista organizado en red que las ha denunciado. Porque el silencio supone la normalización, la aceptación. Y ya dijimos hace tiempo que no estamos dispuestas a aceptar más esta situación.

Este 25 de noviembre va a ser, por tanto, un día para seguir identificando los diferentes aspectos de la violencia machista, empezando por los más sutiles que están socialmente normalizados, como los tocamientos; las obscenidades verbales; los mensajes y expresiones sexistas; el control de la indumentaria, del uso de redes sociales o de las amistades, las dificultades para ocupar libremente el espacio público (patios escolares, espacios recreativos, parques). En un segundo estadio, estarían las agresiones sexuales y físicas; y, en el ámbito más violento, los asesinatos.

La violencia sexual contra las mujeres y las niñas, en el contexto de la violencia machista normalizada, tiene un objetivo claro, una función social concreta: controlar a las mujeres y restringir su libertad.

Ya es hora de pasar de las palabras a los hechos. Es importante renovar o crear leyes que establezcan un marco, más aún cuando se hace en la dirección demandada por el movimiento feminista, pero de nada sirven si no se establecen presupuestos y recursos técnicos para su desarrollo.

Debemos tener en cuenta que el derecho reclamado no se limita a la seguridad, sino que se extiende al acceso y a la libertad para vivir en un espacio, para socializarse, hacerlo suyo y transformarlo, en función de los intereses, deseos y necesidades de mujeres y niñas.

Por todo ello, la corporación en pleno del Ayuntamiento de Andoain, propone para su aprobación los siguientes acuerdos:

1.- Conocer en profundidad las múltiples formas de negación del espacio público a las mujeres para tenerlas en cuenta en el diseño y desarrollo de las políticas municipales.

2.- Seguir impulsando y trabajando junto a las distintas asociaciones de mujeres de Andoain, la implementación efectiva de políticas integrales para prevenir y dar respuesta a la violencia sexual en los espacios públicos, a través del desarrollo de capacidades, sensibilización, movilización comunitaria y otras estrategias.

3.- En cuanto a la seguridad real detectada en los espacios públicos, seguir trabajando desde la Perspectiva de Género, el diagnóstico urbano participativo del municipio de Andoain, para que se tenga en cuenta las necesidades de las mujeres. Con objeto de lograr un pueblo seguro e inclusivo para mujeres y niñas.

4.- Establecer los recursos necesarios para que en las políticas locales se trabaje en diferentes aspectos: impulsar cambios en las actitudes y comportamientos, para garantizar los derechos de las mujeres y niñas a disfrutar de espacios libres de violencia, y promover, para ello, las relaciones de género respetuosas, la igualdad de género y la seguridad en los espacios públicos.

5.- - Para la consecución de lo especificado en los puntos anteriores, colaborar con otras instituciones y administraciones, como ayuntamientos y Emakunde, con grupos sociales y con el movimiento feminista; para que las mujeres y las niñas puedan disfrutar del espacio público en condiciones de seguridad e igualdad.

ANDOAINGO UDALA

La realidad de la violencia machista es compleja y contradictoria en general, pero en la juventud, requiere una mirada lenta y analítica. Este año, la programación del día internacional contra la violencia hacia las mujeres tendrá como objetivo analizar la violencia machista y las políticas de prevención en el ámbito juvenil.

Y así mismo, hacemos un llamamiento a toda la ciudadanía de Andoain, para que participe activamente en los actos que se han organizado en torno al 25 de noviembre, especialmente en el acto de homenaje a las víctimas de violencia machista, que se celebrará el 25 de noviembre a las 19:00h en Goiko plaza.

Andoain, a 25 de noviembre de 2022